

# PLAZA **B**ERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

19-1-29 27. ALEA

Asteroko azoka  
baten aukera

6. ORR. ►►

Euskaraldiaren ondorena  
aztergai

8. ORR. ►►

Gabonak  
argazkitan

11. ORR. ►►

Plaza Etxeberri,  
herriarentzat

4. ORR. ►►

# Urte amaiera kultur eta kirol ekimenez blai

Euskaraldia, kirol astea eta liburu astea izan ditugu Zizurkilen abenduan zehar. Argazki bidez hainbat une jaso ditu Plazaberrik.

2



Hernandorena kultur taldeak Gu Ta Gutarrak ipuin harrigarria euskaratu du.



De Mode Quartet taldearen kontzertuak Euskaraldia musikaz jantzi zuen.



Kirol astean hurrek rokodromoan ibiltzeko aukera izan zuten.



Hernandorena ipuin lehiaketak 16. edizioa bete du.



Gau krosa beste behin arrakastatsua izan zen guztiz.

# Memoria lantzeko tailerra, 65 urtetik gorakoentzat

Zizurkilgo Udaleko gizarte zerbitzuek sustatuko ekimena da mendekotasun prebentzio programaren barnean.

Gizarte zerbitzuen maparen arabera, Udalen eskumena da mendekotasun prebentzio programak antolatzea. Modu honetara, aurreko aldian arrakasta izan zuen ikastaro bat eskainiko da berriro: Memoria tailerra. Mendekotasun arina duten edo erabat autonomoak diren herriko pertsona nagusiei begira antolatuta dago, "ez da gaixo edo menpeko direnak artatzeko tailer bat, prebentziorako da", zehaztu du Maite Amenabar gizarte zerbitzuetako zinegotziak.

## Astean bitan

Astean bitan izan ohi dira tailerrak, astelehen eta

## «Prebentziorako tailer bat da»

ostegunetan, 09:30etatik 11:30etara. Urtarriletik ekainera bitartean eskainiko dira eta ondoren irailetik abendura. Mendekotasunaren prebentzio programaren barnean dagoenez, Udalak bere gain hartzen du ikastaroaren gastu osoa. Tailerrak Zizurkilgo Elizpe jubilatutxo eman ohi dira eta interesa duenak Aiztondo gizarte zerbitzuen mankomunitatean eskuratuko du informazio gehiago: 943.693930.



## Elikagai bankua, 5 urte herri bidezkoago bat sortzen



2013an, Udalaren ekimenez sortu zenetik, hiru hilero egin du janari banaketa elikagai bankuak. "Gutxitzen doa pixkanaka behar hori duen familia kopurua, 67 izan dira azken banaketan. Egoera hobetzen ari delako izan liteke batetik, baina kontuan hartu behar da baita egoera prekarioa dutenak sarri lan kontuengatik herriz aldatzen direla" zehaztu du Maite Amenabar gizarte zerbitzuetako zinegotziak. Amenabarrek eskerrak eman dizkio hiru hilero elikagai bankuaren jirari elkartzeko den boluntario

talde finkoari, "eurek gabe ezinezkoa litzateke ekimena aurrera ateratzea". Eta herritar zenbaiten keinuak ere eskertu nahi izan ditu. "Bada urtero baserritar bat intxaur mordo bat ekartzen diguna. Aurten ere etorri zaigu, uzta ez dela nahi bezain ona izan esan zigun baina daukan hori ekarri zigun banatzeko. Ikaragarri eskertzen ditugu horrelako keinuak".

*«Jaisten ari da elikagai bankura jotzen dutenen kopurua»*

## Taller de memoria, para mayores de 65 años

Los servicios sociales del Ayuntamiento de Zizurkil promueven este taller dentro del programa de prevención de la dependencia. Es un taller que se imparte de nuevo visto el éxito de la anterior

convocatoria. Esta dirigida a los y las zizurkildarras de más de 65 años, con autonomía suficiente para su día a día. "No es un taller para personas dependientes o enfermas, sino un taller para la preven-

ción", matiza la concejala de servicios sociales Maite Amenabar.

Se impartirán dos sesiones a la semana, los lunes y los jueves de 09:30 a 11:30 en el hogar del jubilado Elizpe. Los

interesados recibirán más información en las oficinas de la mancomunidad de servicios Aiztondo en la calle Muñoa de Zizurkil o llamando al tf 943.693930.

# Plaza Etxeberri Udal jabetzako eraikina izango da

Aho batez onartu du Zizurkilgo udalbatzak Plaza Etxeberri etxearen erosketa jasotzen duen hitzarmena. Lehen ordainketa egin du Udalak eta berau izango da 2019 urteko inbertsio nagusia.

4



1914ko argazkia.

Proiektu batzuk Udaletik proposatzen dira eta beste batzuk berriz Udalari iristen zaizkio. Azken kasu hau dugu Plaza Etxeberriren erosketa-rena. "Salgai zegoela jakindakoan, pentsatu genuen interesgarria eta onura publikokoa izan zitekeela eraikinaren jabetza eskuratzea. Jate-txearen aktibitatea martxan du behean, bi solairu handi ditu goian eta etxe historikoa da plazaren erdian. Horrela hasi ginen gaia lantzen" azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak.

## Herriarentzat aukera

Alkateak herriko zerbitzuak indartzeko modu gisa ikusten du Plaza Etxeberriren erosketa. "Taberna-jatetxe zerbitzua bermatuz, herrian bizia mantentzeko modu bat izango da epe motzean eta aurrera begira 196 m<sup>2</sup>ko hiru solairuko etxea izanik, aukera asko ematen dituela iruditzen zaigu. Plazan eraikin garrantzitsua da eta horren kontrola Udalak edukitzea nahi izan dugu." Lehen ordainketa egin du jada Udalak. "750.000 eurotan erosiko dugu eraikina, urtarilaren 15ean egin ge-

*«Lehiaketa publikoa aterako dugu taberna-jatetxearen ardurara hartzeko»*

nuen lehen ordainketa eta martxoaren amaieran egingo dugu bigarrena. Azken zatia datorren urtean ordainduko da". Ekonomikoki, akordio ona delakoan da Luengo. "Udalak bere aldetik egindako balorazioak ere erakutsi du bi aldeak asebetetzeko moduko akordioa dela". Lehen ordainke-

## Plaza Etxeberri, una oportunidad para Zizurkil

El pleno del Ayuntamiento de Zizurkil ha acordado de manera unánime el convenio que regula la compra de Plaza Etxeberri. El Ayuntamiento ya ha efectuado el primer pago. Ésta será la mayor inversión de 2019.

El 15 de enero se efectuó el primer pago por la adquisición

del edificio histórico de la plaza P.M. Otaño. "Manteniendo el servicio de bar-restaurante, la compra supondrá un impulso en la vida del municipio a corto de plazo, y en el futuro es una oportunidad para Zizurkil Goia o herrigunea. Es un edificio de 3 plantas de 196m<sup>2</sup>, de marcado

carácter histórico, y pensamos que ahora es un buen momento para la operación". Además de ser estratégico, Luengo defiende que es buen acuerdo desde el punto de vista económico. "Compraremos el edificio en 750.000 euros, la valoración realizada por el Ayuntamiento

demuestra que es un acuerdo que satisface a ambas partes. Es una gran inversión, pero tras años reduciendo la deuda, ahora sí nos lo podemos permitir". Así, por primera vez desde que gobierna EH Bildu, se ha pedido un préstamo este 2019. "Hemos acordado un préstamo



ta eginda, Zizurkilgo Udalak etxebizitza eskrituratu du. "Inbertsio handia da, 8 urteetako handiena, baina ikusten genuen orain bai, bagenuela aukera horretarako hainbeste urteetan zorra murriztu eta gero".

Proiektuak piztu duen interesaren seinale, bi aldeen arteko hitzarmena Udal talde guztiek babestu izana nabarmendu du Luengok. Erosketa honi aurre egiteko, EH Bildu agintean denetik lehen aldiz, zorpetu egingo da Zizurkilgo Udala. "Aurten 450.000 euroko mailegua hitzartu dugu, urte hasieran ordainketak egiteko likidezia behar dugulako egin da kopuru horren eskaera baina mailegu horretatik 150.000

euro aurten bertan itzuliko dira, *crédito puente* deitzen zaion formula bidez". Honela aurtengo urtea miloi bat euroko zorrarekin amaitzea aurreikusten du Zizurkilgo Udalak, "zorra gehiegi igo gabe eta gainera hurrengo urterako *remanente* edo gerakina aurreikusi dugu. Horrela, datoren urteko azken ordainketaren zati handiena *remanente* horrekin egin ahal izango da", azaldu du alkateak.

#### Epe motzeko urratsak

Plaza Etxeberri epe luzeko proiektu gisa hartzen du Udal gobernauak. "Behin etxebizitza eskrituratuta, datozen hilabeteetan lehiaketa publikoa landuko dugu taber-

na-jatetxearen ardura hartzeko, aktibitateari eusteko". Handik aurrera eraikinean jar litezkeen zerbitzuen inguruan gogoeta lasaia egin behar dela uste du alkateak. "EH Bilduren irizpideei jarraituz, iruditzen zaigu herritarrekin presarik gabe aztertu beharreko kontua dela eraikina zertarako erabili, datorren legealdian egin litekeen parte hartze prozesu interesgarri bat bezala ikusten dugu. Iriarte baino leku handiagoa ematen digun eraikina da, etxebizitza beraren zentzu historikoa ahaztu gabe. Guk abiatu eta Udal talde berriak jarraipena emateko proiektu polita delakoan gaude". Udala eraikinaren jabe egin-

**«Presarik gabe, herritarrekin aztertu beharko litzateke eraikinaren erabilera zehatza. Aukera asko ematen ditu»**

go da, alboko lur saila berriz eraikuntza enpresa batek bereganatuko du, plan orokorrean etxebizitzak egitea aurreikusita baitago lur sail horretan. Zizurkilgo Udalak eskerrak eman nahi dizkio Plaza Etxeberriko familiari negoziaketetan izan duen jarraitasunagatik.

de 450.000 euros para obtener liquidez y hacer frente a los pagos en la primera mitad de año, pero 150.000 euros se devolverán este mismo año por medio de un crédito puente". De esta manera, el Ayuntamiento prevé terminar el 2019 con una deuda aproximada de un mi-

llón de euros, "sin una subida preocupante de la deuda y con un remanente que cubrirá la mayor parte del último pago de la compra de Plaza Etxeberri, que se efectuara el 2020".

#### Proyecto participativo

Plaza Etxeberri es un proyec-

to a largo plazo para Luengo. "Tras obtener la titularidad del edificio, en los próximos meses sacaremos a concurso el servicio de bar-restaurante para mantener la actividad. Después, siguiendo las directrices de EH Bildu, creemos que debemos trabajar y consensuar con los

vecinos y vecinas el uso que le vayamos a dar al edificio, viendo las necesidades del municipio. Creemos que es un proyecto ilusionante para la siguiente legislatura". El Alcalde ha querido agradecer a la familia de Plaza Etxeberri su disponibilidad en las negociaciones llevadas a cabo.

# Estalpea erabat amaitutakoan, **azoka bat** antolatu nahi du Udalak

6



EH Bilduk hauteskunde programan jasotako neurrietako bat zen estalpean asteroko azoka baten bideragarritasuna aztertzea. Aukera ikusita, proba egitea erabaki dute.

Uneotan azken lanetan ari dira Elbarrena erdiguneko estalpean. "Aleroak falta zituena plaza osorik estaltzeko eta horretaz gain ikusi diren zenbait akats ere konponduko dira. Ingurune osoa estaltzen duen estalpe bat izango dugu edozein ekimen antolatzeke lasaitasuna emango diguna, eta gune estali bat herritarrentzat herrien erdigunean" azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak.

*«Herriari bizia ematea da asmoa»*

## Azokarekin proba

Udaberri alderako egin nahi dute proba azokarekin. "Eragile ezberdinekin hitz egiten ari gara, 5 bat postu ziurtatu nahiko genituzke. Ohiko azoketako postuez gain, herriko baserriarren bat animatzea ere gustatuko litzaiguke. Guztiekin hitz egin eta egun eta ordutegia adostean jakinaraziko dugu. Herriari bizia ematea da asmoa".

## Sahiesbideari ezezkoa Aldunditik, eta errepidea konpondu gabe

Gipuzkoako Aldundiak ez du epe motzean Zizurkilgo Elbarrena auzotik kotxeak eta bereziki garraio astuna aterako lituzkeen saihebidetako egiteko asmorik. "Milaka kotxe eta kamioiren zama jasotzen dugun arren, ezezkoa erabatekoa izan zen, proiektu berri bat eta merkeago bat lantzeko asmoa azaldu dute baina aurretik beste hainbat herri-tako proiektuak jarri dituzte, ez omen da Zizurkil lehen-tasuna", azaldu du alkateak. Era berean Aldundiari behin

baino gehiagotan eskatu zaio Zizurkilera sartzeko Adunako zuzengunea konpontzea. "Azken bileran begiratzekotan geratu ziren baina ez dugu beste berririk jaso azken hilabeteetan. Lotsagarria da egunerorik horrelako bideetatik ibili beharra". Aurrez sinadura biltzeko bezala, Udalak begi onez ikusten du herritarren edozein mobilizazio. "Iruditzen zaigu lehen mailako arazo bat dela Zizurkil duguna eta bigarren mailako herritar gisa tratatzen gaituztela".



## Un mercado semanal en la plaza recién cubierta

Es la posibilidad que baraja y en la dirección en la que está trabajando la corporación municipal, puesto que era, además, uno de los proyectos que recogía el programa de EH Bildu tras cubrir parte de la plaza. En estos momentos

se están concluyendo los últimos trabajos. Según explica el alcalde Joxe Mari Luengo, "faltaban por colocar los aleros para cubrir con totalidad esa zona de la plaza y además, se subsanarán algunos defectos que hemos detectado. Esta cu-

bierta nos da la oportunidad de organizar cualquier actividad en Elbarrena sin miedo a la climatología y ofrece cobijo los días de lluvia".

En primavera se prevé probar con un mercado semanal. "Vemos que es posible orga-

nizarlo, hemos hablado con algunos feriantes y estamos trabajando para que algún baserriarra de Zizurkil también se anime. Tras hablar con todos se decidirá el día y el horario. Sería un paso más para dar vida al municipio".

## ALBISTEA

# Hondakin organikoak **modu egokian** kudeatzea, ezinbesteko urratsa

Organikorako boltsa konpostagarriak doan eskura daitezke Udal bulegoetan.

Batzuetan ez gara konturatzeko nolako garrantzia duen organikoa modu bereizian kudeatzea. Organikoa etxean sortzen dugun hondakinen pisuaren % 40a inguru dela kalkulatzen da. Zizurkilen, batez beste, 67 tona hondakin jasotzen da hilabetean, eta beraz, kalkuluen arabera, hiler 28 tona organiko sortzen da.

Organikoa kudeatzeko modurik errazena eta gomen-dagarriena konpostajea da. Teknologia sinplea erabiliz eta baliabide ekonomiko handiegirik gabe, ingurumenarekiko onurak sortzen dituen metooda da konpostajea. Baina konposta lortu ahal izateko, kalitate handiko organikoa izan behar du, konposta gure lurra ongarrizteko erabiltzen baita gero. Lurzorua zaintzeko, beraz, inpropio kantitatea mugatu beharra dago; hau

da, konpostagarria ez den hondakin kopurua. Norberak konpostajea egiten duenean, gero bere lurretan erabiltzeko konposta denean batez ere, inpropiorik ez da egoten apenas konpostagailuen barruan. Beste kontu bat da, ordea, konposta konpost-plantaren batean ekoizten denean. Bilketa sistemaren arabera asko aldatzen da inpropio kopurua: gero eta zehaztasun maila handiagoa bilketa garaian, orduan eta inpropio kopuru txikiagoa izan ohi da.

Inpropio kopurua neurtzeko Tolosaldeko Mankomunitateak karakterizazioak egin ditu organikoa biltzen duen herri ezberdinetan. Karakterizazioetan, inpropioen artean, besteak beste, plastikozko poltsak, pixoihalak eta iraungitako janari ontziratuak sumatu da. Orokorrean, herri askotan, GHK gomendatzen



duen %5eko inpropio kantitatearen muga gainditzen da, eta oso herri gutxi dira % 2 baino inpropio gutxiago dituztenak. Aldiz, Zizurkilen atez ate jasotzen den organikoaren inpropio kantitatea %1.79koa da. Atez ateko egiten duten herritarrek ondo ari denaren seinale.

## Boltsa konpostagarriak

Zizurkilen Hondakinen Programa martxan jarri zenetik,

2018ko urrian, alegia, herritarren eskaera bat askotan errepikatu da: Udalak poltsa konpostagarriak banatzea, hain zuzen ere. Ikusita poltsa hauek derrigorrez erabili behar direla organikorako, plastikoa ekidin eta organikoaren kalitatea egokia izan dadin, eta konturatuta garesti xamarrek direla, Udalak eskaera horri erantzutea erabaki du eta doan banatzen hasi dira Udal bulegoetan.

## La gestión apropiada del orgánico, imprescindible para un buen reciclaje

Desde que se puso en marcha en Zizurkil el programa de residuos, en octubre de 2018, una de las peticiones que se ha repetido por parte de los vecinos y vecinas de Zizurkil ha sido la necesidad de que se repartiesen bolsas biodegradables. Desde diciembre se pueden obtener gratis en las oficinas

municipales.

El orgánico supone un 40% de nuestros residuos. En Zizurkil, se recogen al mes 28 toneladas de residuos orgánicos. Para poder efectuar el compost con dichos residuos, es imprescindible que la cantidad de impropios sea mínima; según el sistema de recogida del or-

gánico, este dato suele variar considerablemente, la calidad del orgánico para el compostaje suele ser de mayor cuanto más exacto es el sistema de recogida. En los estudios realizados por la mancomunidad de Tolosaldea, se ha podido comprobar en muchos municipios la existencia de pañales, envases o

plástico en el residuo orgánico. El impropio máximo recomendable es del 5% y en el caso de Zizurkil la calidad del orgánico que se recoge puerta a puerta es más que satisfactoria con un 1,79% de impropios, lo cual demuestra el buen hacer de los y las zizurkildarras que realizan el puerta a puerta.

# Euskaraldia joan

Azaroaren 22tik abenduaren 3ra 543 zizurkildarrek parte hartu zuten ariketa kolektibo berritzailean. Egun horiek gogoratu eta aurrera begira jarri nahi izan du Plazaberrik.



Udalak zozketatu zuen saskiaren irabazlea Jose Ramon Martiarena Zapian izan zen.

"Ahalduntze beharra zuen euskaldunak eta euskalgintzak, herritarren babesarekin eta baikortasunarekin lotuz euskara". Gogoeta hori eta antzekoak entzun ahal izan ziren azaroaren 28an, Euskaraldiaren erdian Atxulondo kultur etxean egin zen solasaldian. Solasaldi horretan zen Garazi Azkue Euskaraldiako antolakuntza taldeko kidea. "Kuantitatiboki erantzunarekin pozik" zeudela adierazi zuen baina guztia prozesu baten hasiera gisa kokatu zuen. "Euskaraldia da euskararen aldia, eta hori ez da 10 egunetara mugatzen. Ekimenak jarraipena izango du, luzerako proiektua da".

## Baikortasuna

Baikortasuna sumatzen zen oro har ekimenean parte hartu zutenen artean. "Espero ez nituen batzuekin ezusteko atsegina hartu dut", zioen batek. Belarriprest figura nabarmendu zuen beste batek. "Orain arte euskaratik aparteago sentitzen zirenak parte egiteko balio izan du eta oso pozik ikusten zaie". Baina argi ilunak ere ikusi ziren. "Bi guraso euskaldun gaztelaniaz ari ziren ni iritsi naizenean, horietako bat ahobizi txaparekin, ni euskaraz hastean euskaraz jarraitu dugu hirurok baina ni ostera joan naizenean ez dakit nola

jarraitu duten, ez da erraza ohiturak aldatzea", zioen bertaratu zen guraso batek.

Zizurkilgo Udalak egunero antolatu zuen ekitaldiren bat Euskaraldiarekin bat eta bereziki nabarmentzekoa izan da saltokietan egindako kanpaina. Herriko komertzioetan euskaraz egitearen truke sari bat ere zozketatu zen Euskaraldiko egunetan. Baina aurrera begira zer? Galdera hori egin diegu Euskaraldian buru belarri parte hartu dute bi zizurkildarri, Ainhoa Larrea Udaleko euskara teknikariari eta Maider Barandiaran AEK-ko irakasleari.

## Maider Barandiaran:

### "Ariketa sozial erraldoi baten partaide izateak ilusioa sortu du"

#### Nola bizi izan dituzu Euskaraldia ekimeneko egunak? Zerk harritu zaitu?

Harritu, harritu, ez dakit, baina igual etxean bertan hasieratik ikusitako etsipenak sortu dit zer pentsa handia. Nekeak eragindako ondorioa da, ordea. "Txapa zeetako? Baina guk beti itte deuta euskaraz." esaten zutenek txapa eskatzeko arrazoiak falta zituzten hasieran, ekintza hasi aurretik. Ikusgarritasuna antzeman aurretik. Aldiz, Euskaraldia au-

rrera joan ahala, ilusioa piztu zitzailela ere sumatu nien. Hamaika egunetan indartuz joan ziren pixkanaka-pixkanaka. Ariketa sozial erraldoi bateko partaide izateak sortu zien azkenerako ilusioa eta protagonista izateko aukera, eredu izateko harrotasuna.

#### Ekimena igarota, aztararen bat utzi duela uste duzu?

Asko harritu eta poztu ninduen nire sozio-linguistika radarrak (belarriek) urte zaharreko bestaurrean Zizurkilgo taberna batean entzundakoak: Taberna lepo zegoela, tabernari eusle berriak gaztelaniaz

eskatu zion herritar bezeroari euskaraz eskatzeko eskaria egin zion. Beraz, sokatirak oraindik irauten duen seinale.

#### Euskara irakasle zaren aldetik, ikasleek nola hartu dute Euskaraldia?

Oro har, ikasleen artean Belarriprest gehiago izan dira, nahiz eta, mailaren arabera, izan den ausartagorik ere tartean-tartean. Eta aitortu behar dut ilusio bereziagoa sumatu diedala Belarriprestei Ahobizien aldean.



# da, eta orain zer?



Ainhoa Larrea:

## “Belarriprest-ak identifikatzeak ohitura aldaketak bultzatzeko balio du”

9

### Zizurkilen euskaraldiak utzitako datuei begira, zer azpimarratuko zenuke?

Partaidetza azpimarratuko nuke zalantzarik gabe. Ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboan zain gaude eta horiek emango dizkigute datu interesgarrienak, baina hala ere datu garrantzitsu bat atxarri dugu: Tolosaldean 16-50 urte arteko biztanlegoaren heren batek parte hartu du Euskaraldian eta hori izugarria da. Zizurkilen 543 herriarrek izen eman dute, 457 ahobizi eta 86 belarriprest.

### Zein izan da Euskaraldiaren indargunea zure ustez? Eta zertan ez da iritsi nahiko zenukeenara?

Euskaraldiaren indargune nagusia jendearengan ilusia berpiztu duela da. Azken urte hauetan Euskara Batzordeak sortzea ia ezinezkoa izan da eta Euskaraldiak jende berri eta desberdin ugari erakarri

du, lanerako prest eta ilusioz gainezka. Erronka nagusia orain jende hori aktibo mantentzea da. Bestalde, euskara bera prestijiatzeko balio izan du Euskaraldiak. Euskara berriz ere agendara ekarri da eta euskarak elkartzeko eta ez banatzeko balio dezakeela erakutsi du. Belarriprest-ak identifikatzeko ere balio izan du Euskaraldiak eta, horri esker, ohitura aldaketak iritsi dira.

Rolak zenbaitetan ondo ez direla ulertu uste dut eta ahobizi txapak zeramatzen jendea erdaraz entzun dugu, baina dinamika bera arituz eta egoera desberdinetan barneratu behar da.

Oso eremu euskaldunetan bizi garela ulertzeko balio izan dit Euskaraldiak eta Euskaraldiko egunetan Zizurkilgo kaleetan euskara gehiago entzutea gustatuko litzaidake, baina pixkanaka

lortu behar den helburua dela ikusi dut. Ereiten hasi gara eta lanean jarraitu behar dugu.

Bereziki zoriondu nahiko nituzke Danena futbol elkartekoak egin duten saiakeragatik. Euskaraldia aurretik entrenatzaileekin formazio saioak egin ziren eta hauen sentsibilizazioa eta euskararekiko konpromisoa nabarmen geratu zen eta guzti honek islada bikaina izan du zelaian. Zorionak beraiei eta lerro hauen bidez ildo honetan lanean jarraitzeko eskaera luzatu nahiko nieke. Eskertza bera luzatu nahi diet herriko hiru ikastetxeei hartutako konpromisoengatik, hortxe baitago herriaren etorkizuna eta bertan transmititzen diren hizkuntza irizpideak ezinbestekoak direlako.

### Eta orain zer?

Bidea hasi besterik ez dugula egin uste dut. Abiapun-

tu bikaina izan da, baina asko dago egiteko eta erronkak geroz eta handiagoa izan behar dutela esango nuke. Arnasgune batean bizi gara eta, nire iritziz, eredugarri izan gaitzeko. Euskara aldi gehiago etorriko direla argi dago, baina aldi bat eta bestearen artean guk lanean jarraitu behar dugu eta herritarrek hartutako konpromisoak mantentzea ezinbestekoa da. Etorkizuna euskaraz posible dela erakutsi dute herritarrek eta oraintxe Udalak hurrengo lau urteetarako onartu berri dituen Zizurkilgo Udalaren erabilera plan estrategikoak eta euskararen plan estrategikoak aurrera pausu garrantzitsuak jasotzen dituzte. Ea guztion artan lortzen dugun aurrera eramatea.



# Plazida Otaño liburutegia, **sendotzen** ari den proiektua

2017ko datuak gainditu ditu 2018an Zizurkilen dagoen Aiztondoko liburutegiak.



Liburutegian 2018an egin zen tailerretako bat.

Legealdi honetan gauzatu den proiektu nabarmenenetakoa da Plazida Otaño liburutegia eta bikaina izaten ari da herritarren erantzuna. Liburutegiko arduradunek 2018ko datuak eskaini dituzte egunotan. "1529 bazkide ditugu, Zizurkilgo biztanlegoaren erdia baino gehiago da hori, erabat ez ohikoa den zifra baina gure zabalpena erakusten duena", azaldu digu Arantxa Zabala liburuzainak. Beste datu bat: 2018an, batez beste egunero 108 bisita izan zituen liburutegiak. Horrez gain ordea, antolatu diren ekitaldien kopurua eta kalitatea nabarmendu du Zabalak: "Ipui-

nen unibertsoa familian ekimena guztiz goraipagarria izan da ikas komunitate eta herriko elkarteekin garatu eta urte osoa bete dugulako, Motxila ibiltaria ekimenaren bidez familia giroan irakurketa bultzatu dugu, arte tailerrak egin ditugu sarri erakusketa baliatuz, book tráiler lehiaketa...". Ekimen horien ezaugarri bat ere azpimarratu nahi izan du Zabalak, "herritarren parte hartzea bultzatzen dugu ekimen gehienekin, hori da gure helburu nagusia, herritarrak liburutegira erakartzea".

## Ikasgela

Plazida Otaño liburutegiak

## «Erreferente bihurtu gara»

bailarari egin dion beste eskaintza garrantzitsua ikasgela da. "Bailara guztitik hurbiltzen dira gazteak hona ikastera. Baina aitortu behar dugu arazoak ere izaten ditugula tarteka isiltasuna mantentzeko". Hori hobetu beharrekoen zerrendan du Zabalak etorkizunera begira.

2018ko datuek indarra ematen diete aurtengo urteari ere gogotsu eta ideia ugariarekin ekiteko. "Erreferente bihurtu gara bailaran baina badago zer eginik oraindik ere", esan digu

Zabalak. Gazteak ikastera ez ezik, liburutegiko beste ekimenetara ere erakarri nahi dituzte. "Gamifikazioa irakatsi nahi da (joku eta jolasen bidez ikasteko teknikak lantzea), hilero gai ezberdinak jorratzeko pertsona ezagunak liburutegira ekarriko ditugu, xake ikastaroa eskainiko da...". Plazaberriko orriotan ez da lekurik prestatu duten guztia sartzeko.

## Erakusgunea

Liburutegiak duen pasiloa baliatuz erakusketa ugari hartzen ditu urtean zehar, artista gazteei bertan parte hartzeko aukera emanez besteak beste. Urtarrilaren 18tik martxoaren 29 bitartera *Sagardoaren kondaira* erakusketa izango da ikusgai. Astarbe sagardotegiak sustatutako erakusketa da eta urtarrilaren 18an inauguratu zen. Erakusguneak eta Joxe Arregi plazako hiru tabernek bat egin dute artelan bakoitza pintxo bat eta sagardo batekin lotu dutelarik. Horrela, lau hitzordu jarri dira, erakusgai izango diren obrak ulertu eta hauek pintxo eta sagardo desberdinekin lotzeko.

## Plazida Otaño, un proyecto que se afianza

La biblioteca Plazida Otaño ha superado en 2018 los datos del año anterior. "La biblioteca tiene 1529 socios, es más que la mitad de la población de Zizurkil, dato

que demuestra su implantación", explica la responsable Arantxa Zabala. Otro dato: De media cada día recibió 108 visitas en 2018. Zabala remarca el éxito que tiene

en la comarca sala de estudio, sin olvidar las actividades que se han desarrollado durante todo el año. "Con las actividades pretendemos fomentar la participación de

los y las zizurkildarras". Y así seguirán el 2019. "Creemos que la gente está contenta con el servicio y eso nos da fuerzas para seguir trabajando".

## ARGAZKI BILDUMA

**Gabon** egun oparoa **Zizurkilen**

Herrigunean nahiz Elbarrenan gabon eskeko kantuan ibili ziren goizean zehar eta arratsaldean Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera ospatu zen, astoaz eta suzirien argiaz lagunduta. Urtez urte geroz eta arrakasta handiagoa du 2013an martxan jarri zen etorrera honek.



11



# ANDER ORTIZ DE MURUA



## “Emozio gorabeherak orekatzeko bidea ematen didate sorkuntza lanek”

Gabonetako apaingarriekin gertatzen den moduan, azken erakusketatik ekarritako eta oraindik ere bere lekuan jartzeke dauden lanen artean topatu dugu Ander Ortiz de Murua bere lantokian. Lanez gainezka dabil Zizurkilen bizi den villabonatarra.

### Nondik datorkizu artista sena?

Betidanik, txikitatik gustatu izan zait. Etxean hori ikusita eta nik ere eskatuta Villabonan hasi nintzen marrazketan, eta, jada gerora, trebakuntzan harago joan eta Arantxa Arratibelekin hasi nintzen Donostian, erretatuak landuz eta beste teknika eta testura batzuk aztertuz.

### Baina, oso barrurako egin zenuen lana, harik eta 2016an Zizurkilen lehen erakusketa jarri arte. Zerk akuilatu zintuen?

Bi arrazoik batez ere: bate-tik, nire emazteak bultzatuta eman nuen pausoa. Bestetik, tatuatzailerak pres-takuntza egitetik etorria nintzen orduan Madriletik, eta han mundu bereko lagunekin izandako harremanek eta han jasotakoak animatuta.

### Erakusketa hark ate asko zabaltu zizkizun...

Bai, gerora erakusketa gehiago ere egin ditut.

Hemen inguruan eta kanpoan ere bai: Segovian izan nintzen ikusten duzun bilduma honekin eta jende asko inguratu zen, oso lan bisualak baitira ulertzeko ere. Madrilen ere eskaini zidaten baina denbora falta tarteko ezin izan dut joan. Azken finean, materiala eraman behar da, aurkeztu, elkarrizketak eman... eta gauzak txukun aurkezteko denborarik ez badago, nahiago ez egin. Dena ezin da...

### Testurak aipatu dituzu lehen. Norbaiten larruzalean tatuatzea ardura handiko lana izango da, ezta?

Bai, bai. Aurrelan handia egin behar da. Bezeroarekin egon, zer nahi duen ondo ulertu, marraztu... prozesu oso baten azken muturra baino ez da tatuatzearena, zenbaitetan azkarrena ere badena.

### Errealismoko irudietan sekulako eskua daukazu.

Hor badaude hiperrealismo

eta antzerako mugimen-duak. Ni horietan kokatu baino, nire egiten ditut, moldaketak eta nahasketak nire gustura eginez.

### Villabonan zure estudioa ireki zenuenetik, ez zauden izan duzun harreraz kexatzeko moduan, ezta?

Ez nuen orain dela asko ireki eta eskaera dezente izaten ari naiz; jada hiru hilabetetarako agenda betea dut. Tatuatzailerak lanaz gainera, bestelako enkargu batzuk ere badituzte.

### Tatuatzailerak lanak gainerako artelanetarako inspirazio izango direla pentsatzen du eta alde-rantziz. Baina inspirazioa nondik, bereziki?

Bai, hala da: Batak besteari laguntzen dio. Baina, bereziki, sorkuntza lana oso pertsonala da, eta emozioak izaten dira inspirazio iturri. Ikusten duzun bildumako lanek, esate baterako, zerikusia dute aitareneko gaixotasunaren bilakaerarekin eta emozio gorabe-

hera horiek ekarri dituzte lanok. Momentu horietan lasaitasuna ematen dit, orreka, emozio horiek lanetara ekartzeak.

### 2019a hasi berria da: Urte hasierak inflexio puntu izaten dira. Aurtengorako asmorik?

Sumatzen dut boligrafoarekin marrazteari utziko diodala laster. Buruan badut, ordea, harekin egiteko lan handi bat...baina zenbait enkargu ditut egiteko aurretik eta ekainera arte ezin izango diot heldu. Baina, auskalo! Ea nora naraman sorkuntza lanak.

### Esaiguzu...

**Zizurkilgo leku kuttun bat:** Plazida Otaño liburutegia

**Pertsonaia bat:** Pedro Mari Otaño

**Zer dago faltan:** Kultura

**Zer dago soberan:** Ez zait bururatzen...

# B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartze  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandorena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,  
Ernio Bidea 9A, beheka,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.